

Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

NERABEENTZAKO ZERBITZUA (GAZTELEKU) KUDEATZEKO KONTRATUA LEHIAKETA ETA PROZEDURA IREKI BIDEZ ESLEITZEKO BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN AGIRIA.

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honetan oinarrituta esleituko den kontratuak NERABEENTZAKO ZERBITZUA KUDEATZEA izango du xede, baldintza ekonomiko-administratiboen agiri honen, betebeharrak teknikoaren agiriaren eta enpresa esleipendunaren proposamenaren arabera. Horiek kontratu izaera edukiko dute.

2.- EZARRI BEHARREKO ARAUAK

Honako hauek arautuko dute kontratua:

- a) Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bateginak (aurrerantzean SPKLTB), azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretuak onartua.
- b) Herri Administrazioen Kontratuen Legeko araubide orokorra onartzen duen 1098/2001 Errege Dekretuak, urriaren 12koak.
- c) Baldintza ekonomiko-administratiboen agiri honek.
- d) Zerbitzua nola eman zehazten duten baldintza teknikoaren agiriak.
- e) Kontratazioaren inguruan aplikagarria den bestelako edozein xedapenek.

3.- KONTRATUAREN IRAUNALDIA

Kontratuak bi urtez iraungo du. Nolanahi ere, zerbitzuak urte bakoitzaren urriaren erdialdetik hurrengo urteko ekainaren erdialdera emango dira. Kontratua luzagarria izango da urtez urte, gehienez, luzapenak barru, lau urtez, betiere aldeetako batek hiru hilabete lehenago beste aldeari kontratua deuseztatzeko eskaera egiten ez badio.


4.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa 45.000 euro, BEZa barne, izango da (BERROGEITA BOST MILA EURO, BEZa BARNE). Zenbateko hori beherantz hobetu dezakete eskaintzaileek.

Betebeharrak teknikoaren agiriko 6. artikuluan jasotakoaren arabera, 3.000 euroko partida bat (BEZa barne) jasotzen da zerbitzua emateko beharrezkoa den materiala erosteko eta kostu gehigarria duten ekintza zehatzak burutzeko, ez besterako. Kostu hori esleipendunari ordainduko zaio, esleipendunak gastuaren justifikazioa aurkeztu ondoren.

Proposamenek eskaintza ekonomikoa jaso beharko dute, kontratu honen xede diren zerbitzuen kostuak zehaztuko dituzte, eta atal bakoitzaren gastuak adieraziko dituzte. Zehazki, ondorengo kontzeptuok zehaztu beharko dira:

- Zerbitzuaren kudeaketaren eta zerbitzua ematearen kostu osoa, aplikagarria zaion BEZa adierazita.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

- Giza baliabideen kostua; hau da, kontratua betearazten zuzenean parte hartzen duten langileen gastua. Zehazki:

a) Honako hauen kostua; oinarrizko lansariena, osagarriena, gizarte-aseguruena, gastu orokorra, finantza-gastuena, joan-etorriena eta lanean ematen duen denborarena, dietena, haien kargura dagoen langile teknikarien ordainsariena, langileen ordezkapenena, prestakuntzarena eta langileentzako laguntza-zerbitzuena.

b) Aplikagarria den hitzarmen kolektiboa. Gipuzkoako esku-hartze Sozialeko Hitzarmena aplikatuko da.

c) Langileen kostuak horien mailaren arabera sailkatua. Hezitzaileen eta koordinatzaile – hezitzailearen prezioa orduko gehi BEZa jasoko dira.

- Zerbitzua emateko beharrezkoa den eta administrazioak jarriko ez duen materialaren kostua.

- Zerbitzuaren kostuak izango dituen gastu orokorren eta industria-mozkinaren ehunekoa.

- Indarrean dagoen balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) aplikatzea.

Aipatutako partida guztiek esleipenaren prezio osoa osatuko dute; hortaz, ez da esleipen-prezio gisa onartutakotik gora ezer ordainduko.

Azalpenen eta gastuen banakapen hori esleipendunak aurkeztu beharko dizkio udalari urtero, oroitza-txosten tekniko batean.

5.- FINANTZIAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko aurtengo aurrekontuaren kargurako finantziazioa aurreikusi da, 227.469.10.04 partidan eta ekintzetarako 226.469.10.06 partidan.

Halaber, aurrekontuetan eskumena daukan organoak konpromisoa hartzen du hurrengo ekitaldietan tarteko izango diren aurrekontuetan ere behar zango diren kredituak erreserbatzeko.


6.- ORDAINTZEKO MODUA

Kontratuko prezioa ordainduko bada, esleipendunak aldeztu aurretik hileko faktura xehatua aurkeztu beharko du, eta Gazteria atalak aldeztu aurretik oniritzia eman beharko du.

Faktura horietatik kendu egingo dira, aldeztu aurretik esleipenduna entzunda, eman ez diren zerbitzuei edo guttiz bete ez diren zerbitzuei, eta lokala edo materiala behar bezala erabili ez izanari dagozkien zenbatekoak, baita faltengatiko zigorrei dagozkienak ere.

7.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratuaren iraunaldiko lehen urtean, ez da preziorik berrikusiko.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Kontratuaren iraunaldiko lehen urtetik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoaren KPIren % 85aren arabera (Estatistikako Institutu Nazionalak –EIN-) eguneratuko da.

8.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez da eskatzen.

9.- BEHIN BETIKO BERMEA

Kontratuaren esleipena jaso duenak, hartutako obligazioak beteko dituela ziurtatzeko, behin betiko bermea jarri beharko du; hain zuzen ere, esleipenaren zenbatekoaren % 5, BEZa kanpo.


Aipatu bermea eratzeko epea hamar egun balioudunekoa izango da, Administrazioak errekerimendua egiten duenetik kontatzen hasita, eta Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko 96. artikulua ezartzen dituen bideetatik edozeinetatik era daiteke.

Bermepean egongo diren erantzukizunak Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko 100. artikuluan xedatutakoak dira.

Bermea Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko 102. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, berme-epa igarota eta esleipendunak kontratuko betebeharrak guztiak beteta.

10.- KONTRATUA BETETZEA

- Kontratua esleipendunaren arrisku eta menturara gauzatuko da.
- Kontratua agiri honetan jasotako baldintzen eta espedientera atxikitako zehaztapen teknikoaren arabera gauzatuko da, administrazioaren zuzendaritzapean, ikuskaritzapean eta kontrolpean. Administrazioak idatziz eta ahoz beteko ditu eskumen horiek.
- Esleipendunari nahiz horren mende dauden pertsonen kontratuaren kaltetan doazen egintzak edo hutsegiteak egotz badakizkieke, eskumena duen administrazioak neurri zehatzak hartzea agindu dezake kontratua behar bezala betetzea lortzeko nahiz behar bezala betetzen jarraitzeko.
- Enpresa esleipendunak bere langileekin eman beharko du zerbitzua, eta horiek beharrezkoa den titulazioa eduki beharko dute.
- Hitzartutako jarraitutasunarekin eta kalitatearekin eman beharko du zerbitzua esleipendunak, eta, halaber, erakunde esleipendunaren barne- nahiz kanpo-inguruabarrak (lan gatazkak nahiz zerbitzua normaltasunez emateari eragin diezaiokkeen beste edozein) kontuan hartu gabe eman beharko du kontratatutako zerbitzua.
- Esleipendunak kontratua behar bezala garatzeko eta betetzeko nahitaezko zat jotzen diren zerbitzuak (lan- edo informazio-bileretara joatea, kasu) bete beharko ditu ordainketa gehigarriak jasotzeko eskubiderik gabe.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

- Zerbitzua emateko beharrezkoak diren lizentzia nahiz administrazioaren baimen guztiak esleipendunak hartuko ditu bere gain, eta bere izenean eskatuko ditu.
- Esleipendunak ezin izango du kontratuan jatorria duten eskubideak eta betebeharrak azpierrentan eman, utzi nahiz eskualdatu udalak horretarako baimena ematen ez badio. Aipatutakoaren inguruko arau-hausteak berarekin ekar dezake kontratua suntsiaraztea.
- Zerbitzura atxikitako langileek behar bezala identifikatuta egon beharko dute, eta enpresa esleipendunak udalari jakinarazi beharko dizkio langileen artean egingo diren aldaketak edo ordezkapenak.

11.- ESLEIPENDUNAREN LAN BETEBEHARRAK

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienezko arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Enpresa esleipendunak hilero aurkeztu beharko ditu zerbitzura atxikita dauden langile guztien TC1 eta TC2, baita langileei egindako ordainketen ziurtagiriak ere.

Enpresak, halaber, langileen artean, kontratuetan, iraupenean, lanaldian eta bestelakoetan egiten den aldaketa ororen berri emango dio udalari.

Orobat, enpresa esleipendunak gaur egun zerbitzua ematen duen enpresako langileak ordezkatu edo subrogatu beharko ditu egungo enpresarekin dituen lan- eta antzinasun-baldintza beretan. Ordezkatu edo subrogatu beharreko langileen zerrenda II. eranskinean ageri da.


12.- DATU PERTSONALAK

Enpresa esleipendunak, kontratatutako zerbitzuekin lotura duten datuei buruz jakin dezakeena isilpekoa da, eta, hortaz, datu horien identitatea eta sekretua gorde beharko ditu. Esleipendunak udala eta kaltea jaso duten pertsonak indemnitzatu beharko ditu sekretu profesionala ez beteta sortutako kalte eta galerengatik.

Kontratua betetzeko beharrezkoa baldin bada enpresa esleipendunak trataera automatizatua duten datu pertsonalak erabiltzea, datu pertsonalen tratamendu automatizatua arautzeko urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoan eta berau garatzeko erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan ezarritakoa bete beharko da.

Enpresa esleipendunak ezin izango ditu kontratuaren bidez lortutako datu pertsonal automatizatuak aplikatu edo erabili kontratuan ageri ez den beste helburu baterako, ezta besteei utzi ere.

Xede horretarako, kontratuari atxikitako agiri bat sinatu beharko du, aipatu konpromisoa hartzen duela adierazteko (I. eranskina).



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

13.- LANEN JABETZA

Kontratua gauzatzeko faseetatik edozeinetan egindako lanak udalaren jabetzakoak izango dira, eta edozein unetan eska dezake lan horiek eskuratzea.

Aipatu lanetatik ondoriozta daitezkeen jabetza intelektualeko eskubideak udalarenak, ez besterenak, izango dira, eta esleipendunak, beharrezkoa bada, horretarako bidezkoa den agiria eman beharko dio, afera hori publikoki jasota gera dadin edozein erakunderen nahiz erregistroren aurrean.

14.- ATXIKITAKO ONDASUNAK

Zerbitzua eman ahal izateko beharrezkoak diren lokala eta materialak atxikiko dizkio zerbitzuari udalak.


15.- KONTRATUA BETETZEAN BESTEEI ERAGIN DIEZAZKIEKEEN KALTEENGATIKO ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNAK

Esleipenduna izango da kontratua betetzeko egin beharreko lanen eta jardueren ondorioz sortutako kalte-galeren erantzulea, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bateginean xedatutakoaren arabera. Xede horretarako, esleipendunak erantzukizun zibileko aseguru bat edukiko du, gutxienez 300.000 euroko estaldurakoa.

16.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Esleipendunaren betebeharrak izango dira:

- Nerabeei bideratutako zerbitzuaren kudeaketa erregularra eta jarraitua egitea. Zerbitzua emango duten langileen bajak bete beharko ditu derrigorrez, eta ezin izango du zerbitzua eten inoiz kontratazio-organoak arrazoituz eta herritarren interesagatik berariaz erabakitzen ez badu.
- Udalari zerbitzuaren kostuaren fakturak aurkeztu beharko dizkio.
- Zerbitzua ematen egon daitezkeen gorabeheren berri emango dio udalari, berehala.
- Zerbitzura atxikita dauden langileen senda-agirien eta baja-agirien berri emango dio udalari horiek gertatu eta hurrengo zortzi eguneko epearen barruan.
- Zerbitzua ematen lortutako emaitzei buruzko txostena aurkeztuko dio udalari, horrek ikuskaritza noiznahi egiteko duen eskubideari kalterik sortu gabe.
- Hilero, zerbitzura atxikita dauden langileen TC1 eta TC2 aurkeztuko dizkio udalari, behar den bezala beteak.
- Behin betiko bermea osatuko du, zehaztutako kopuruan eta moduan.
- Kontratua formalizatuko du administrazio-agirian.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

- Zerbitzura atxikita dauden langileei dagokienez, lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

17.- UDALAREN BETEBEHARRAK

Udalaren betebeharrak izango dira:

- Esleipendunari hitzartutako prezioa ordainduko dio, hark alde aurretik faktura aurkeztuta.
- Udalak esleipendunari jakinaraziko dizkio zerbitzuak ematen egon daitezkeen aldaketa kuantitatiboei buruzko erabakiak.
- Esleipendunari kontratuaren xede den zerbitzua emateko beharrezkoa den lankidetzaren emango dio.

18.- KONTRATUA ALDATZEA

Administrazioak, interes publikoko arrazoiengatik, kontratua alda dezake aurreikusi ez diren aferei aurre egiteko. Halakoetan, esleipendunak ez du eskubiderik izango inolako kalte-ordainik jasotzeko, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko 282. artikuluan oreka ekonomikoari eusteari buruz ezarritakoari kalterik egin gabe.

19.- ZERBITZUA HARTZEA ETA BERME EPEA

Kontratuaren xede den prestazioa bukatu eta gehienez ere hilabete bateko epean prestazioa jaso izanaren egintza formal eta positiboa egingo da akta bidez; egintza horretan, Gazteria Zinegotzigoak kontratuaren xede den zerbitzua ematearekin ados dagoela adierazi behar du.

Halaber, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bateginean jasotakoaren ondorioetarako, bi hileko epea ezartzen da berme-epe gisa, zerbitzua hartu izana formalki jasotzen denetik kontatzen hasita. Berme epe horrek irauten duen bitartean, egindako lanetan nahiz prestazioetan antzeman daitezkeen hutsegiteen edo akatsen erantzukizuna edukiko du esleipendunak.


Epe hori administrazioak eragozpenik jarri gabe igarotzen bada, amaitutzat joko da esleipendunaren erantzukizuna.

20.- ZIGORRAK ESLEIPENDUNARI KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK

Esleipendunak zerbitzua ematean atalen bat betetzen ez badu, hutsegitea arin, larri eta oso larri gisa sailkatuko da.

* Arau-hauste arinak dira:

- Atzerapenak izatea kontratuko betebeharrak betetzerakoan.
- Lana betetzen beharrezkoa den ardura eta profesionaltasun falta arina.
- Udalbatzak emandako jarraibideak arinki behar bezala ez betetzea.
- Puntualtasun falta zerbitzua ematerakoan.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

- Antzemandako faltak lokala behar bezala zaintzeari dagokionez, begirunerik eza, garbitasun falta lokalean eta tresnetan eta zerbitzura atxikitako materialean.
- Erabiltzaileekiko errespetu eta begirune falta.
- Eskatutako azterketak eta datuak berandu edo oker ematea, hutsegite hori esleipendunari egotz badakioke.
- Hainbat arrazoi tarteko, zerbitzuan egindako aldaketen berri ez ematea.
- Zerbitzua ematean izan daitezkeen gorabeherak kontratuan ezarritako epearen barruan ez jakinaraztea udalari.
- Udalak emandako aginduak betetzen berandutzea, betiere berandutzea hori hogeita lau ordutik gorakoa ez bada.

Esleipendunak egindako arau-hauste arinak 300 eurora bitarteko isunekin zigortuko dira, egitate horien ondorioz erlazio juridikoan izan daitezkeen erantzukizunei eta ondorioei kalterik egin gabe.


* Arau-hauste larriak dira:

- Esleipendunak arau-hauste arin gisa zigortutako egintzak errepikatzea.
- Esleitutako kontratua bidegabeki erabiltzea.
- Kontratuak xede duen jarduera ez den bestelako jarduerarik garatzea.
- Kontratuaren funtsezko betebeharren aurkako hutsegite larria.
- Zerbitzua ematen zabarkeriaz jokatzeko edo hutsegite barkaezina egitea, bai langileekiko, bai erabiltzaileekiko, baita udal-arauegia betetzeari dagokionez ere.
- Ezarritako ordutegia ez betetzea.
- Zerbitzura atxikitako langileak kontratuaren xede ez diren bestelako jardueretan aritzea.
- Zerbitzua bi egunez etenda egotea, ezinbesteko kasuan ez bada.
- Zerbitzua ematean, arin edo oso larri gisa tipifikaturik ez dauden beste edozein betebeharrak ez betetzea.
- Urte berean bi arau-hauste arin baino gehiago egitea.

Esleipendunak egindako arau-hauste arinak 600 eurora bitarteko isunekin zigortuko dira, egitate horien ondorioz erlazio juridikoan izan daitezkeen erantzukizunei eta ondorioei kalterik egin gabe.

* Arau-hauste larriak dira:

- Kontratuaren funtsezko betebeharren aurkako hutsegite oso larria.
- Zerbitzua baldintza-agiri honen arabera ez ematea.
- Kontratu bi egunez gelditzea edo etetea, ezinbesteko kasuan ez bada.
- Langileei soldatak ez ordaintzea.
- Zerbitzua ematen ez hastea agiri honetan ezarritako epean, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuan ez bada.
- Zerbitzua ematea pertsonen segurtasunari eragin diezaieketen egoeretan, pertsonenei arrisku larria eta zuzeneko sor diezaieketelako.
- Zerbitzua ematen baldintza teknikoak ez betetzea.
- Udalaren ikuskapen- eta kontrol-lanari oztopoa jartzea.
- Zerbitzura bideratutako materialak kontratuaren xede ez diren bestelakoetara bideratzea, udalaren alde aurretiko inolako baimenik gabe.
- Zerbitzuaren erabiltzaileengandik dirua jasotzea.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

- Urte berean bi arau-hauste larri baino gehiago egitea.

Esleipendunak egindako arau-hauste oso larriak 1.500 eurora bitarteko isunekin zigortuko dira, egitate horien ondorioz erlazio juridikoan izan daitezkeen erantzukizunei eta ondorioei kalterik egin gabe.

Zigorrak udal-zerbitzuek proposaturik jarriko dira, aldeaz aurretik bete beharreko espediente bat beteta. Espediente horren barruan, esleipendunak entzuna izateko duen eskubidea bermatuko da.

Administrazioak esleipendunari honek egindako arau-hausteengatik ezar diezazkiokeen zigorrez gain, zerbitzua ematen egon daitezkeen arau-hausteak esleipendunari ordaindu beharreko prezioetik deskonta daitezke.

21.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZIOAK

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko 223. eta 308. artikuluetan xedatutakoak dira.

Suntsiaraztearen ondorioei dagokienez, aipatu lege-testuko 225. eta 309. artikuluetan xedatutakoak aginduko du.

Izaera bereziko betebeharrak ere zehatz daitezke. Horiek ez betetzeak zuzenean ekarriko luke kontratua suntsiaraztea.


22.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Honako eskumenak ditu administrazioak: kontratua interpretatzekoa, kontratua betetzearen inguruan egon daitezkeen zalantzak ebaztekoa, interes publikoaren inguruko arrazoiengatik aldatzekoa, suntsiaraztea erabakitzekoa eta horren ondorioak zehaztekoa; hori guztia, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko 210. artikuluan ezarritako muga eta baldintzen eta ondorioen barruan.

23.- KONTRATUA GARATZEKO HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, Euskararen erabilera arautzeko Ordiziako Udal Ordenantza.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 18. artikuluan administrazioetako normalizazio planek jaso beharko dituzten gutxienezko edukiak zehazten ditu eta horien artean ondorengo agertzen da: "18 d) Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntza-baldintzak berma daitezkeen." Hori dela eta, administrazioaren eta honen erakunde autonomoen kontratazioetarako pleguetan puntu berezi bat jasoko da eta bertan adieraziko da, kasuan kasuko kontratuari apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d) atalean ezarritako neurriak dagokion ala ez.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen dute, izan ere xede taldea gazteena da.

Baldintza plegu honetan ezartzen diren hizkuntza-baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen **ondorio berdinak** izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

Horrenbestez, kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen dutenez, **zerbitzu hizkuntza** euskara izango da.

- Kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira.
- Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez.
- Kontratuaren xede diren azterlan, txosten, proiektu eta bestelako lanak euskaraz egingo dira, softwareetako testuzko eta soinuuzko interfazeak barne.

Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntz araudiaren arabera jokatu du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; eta beraz, enpresak **administrazioarekin** dituen ahozko zein idatzizko **harremanak** administrazioaren lan hizkuntzaren arabera izango dira.

Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren **jarraipena**:


Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen administrazio atalak berak egingo du finkatutako hizkuntza-baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko (SPKLTB) 52 eta 222 artikulua jarraiki:

- Kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza-baldintzak behar bezala betetzen diren jarraipena egin, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.
- Ikuskaritza kontratu bukaeran ez ezik, modu jarraian ere egingo du kontratu-arduradunak, berariaz prestatutako jarraipen euskarriak erabilita, sor daitezkeen hutsegiteak zuzendu ahal izateko.

Hizkuntza-eskakizuna frogatu duen langileren batek enpresa utziko balu, ordezkokoak berdin frogatu beharko du ezarrita dagoen hizkuntza-eskakizuna. Ildo horretan, ordezkoekin ere arestian aipatutako prozedura beteko da.

Kontratatutako enpresak euskara erabiliko du Gaztelekuko zerbitzuen komunikazio guztietan, bai ahozkoetan, bai idatzizkoetan. Komunikazio guztiak (txartelak, oharrak nahiz idatzizko bestelako edozein bitartekoz) euskaraz egingo dira. Gurasoei bideratutakoak euskaraz edo ele biz egingo dira, gurasoek eskatutakoaren arabera.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Zerbitzuetako langileek euskaraz hasiko dituzte elkarrizketak, eta horrela eutsiko diote elkarrizketari. Nolanahi ere, erabiltzaileak aukeratutako hizkuntza errespetatuko da.

Zerbitzuen komunikazio orokor guztiak euskaraz egingo dira.

Udalarekiko ahozko nahiz idatzizko harreman guztiak euskaraz egingo dira.

Kontratazio-organoari dagokio zerbitzuaren hizkuntza-betebeharren jarraipena egitea; alabaina, Euskara Atalaren ardura izango da organo horren eskura jartzea beharrezkoa duen informazioa. Hizkuntza-betebeharren arloan arauak behin eta berriz hausten badira, egoera hori funtsezko arau-haustetzat joko da; hortaz, kontratua suntsiarazteko arrazoi nahikoa izango da.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

24.- ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratu honen esleipena lehia eta prozedura ireki bidez egingo da, baldintza ekonomikoen agiri honen arabera. Kontratua esleitzeko oinarri izango diren balorazio-irizpideak, garrantzitsuenetik hasita eta ematen zaien haztaperen-mailaz, honakoak dira:

1.- Proposamen ekonomikoa: **10 puntu**

2.- Proiektua: **70 puntu**


- Lan proiektua, arlo teoriko laburra eta hura testuinguruan txertatzeko modua: **17 puntu**
- Zuzeneko arreta eskaintzeko proposamena: txanden antolaketa, ordutegiak, adin-tarteak, 6 esku-hartze ildoen tratamendua eta zerbitzuan erabiltzaile eta familien parte-hartzea sustatzea: **35 puntu**
 - 12-15 urte birtartekoentzat: **17,5 puntu**
 - 16-17 urte bitartekoentzat: **17,5 puntu**
- Barne-lanak (besteak beste, plangintza, ebaluazioa eta koordinazioa) antolatzeko proposamenak. Era berean, langile eta zerbitzuen barne-antolaketa eta hartzaileekin eta haien familiekin komunikatzeko bide eta moduen antolaketa.: **18 puntu**

3.- Lehiakidearen esperientzia antzeko lanetan. Lan-taldearen osaketa eta antolaketa. Langile bakoitzaren dedikazioa eta zerbitzua emateko proposaten den txanda-sistema: **10 puntu**

4.- Hobekuntzak: **10 puntu**

25.- KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA

Gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-prozedura honetan, baldin eta beren ekonomi eta finantza-kaudimena eta gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, eta Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko 60. artikuluan zehazten diren kontratatzeke debekuetakoren bat ere ez badute.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Parte-hartzea norberak aurkeztu dezake edo horretarako baimena duen ordezkariak. Horretarako, ordezkariak beharrezkoa izango du xede honetarako beren beregi emandako behar besteko ahalordea. Pertsona juridiko bat ordezkatzuz haren kideren bat agertzen bada, dokumentu bidez justifikatu beharko du baduela behar besteko eskumena horretarako. Kasu batean zein bestean, ordezkariari ere eragingo diote kontratazioa ezin gauzatu izateko adierazi diren arazoiek.

Horrez gain, eskaintzaileen helburua izango da kontratu honen xedearekin zuzeneko lotura duten jarduerak burutzea, eta haien erakundeak jarduera hori gauzatzeko langile eta material nahikoak eduki beharko ditu.

26.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, eta horri atxikitako agiri teknikoak, administrazio honen idazkaritzan azter daitezke: astelehenetik ostiralera, goizeko 8:00etatik 13:30era, proposamenak aurkezteko epearen barruan.

Aipatu proposamenak 15 egun naturaleko epean aurkeztuko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero eta adierazitako lekuan eta orduen barruan aurkeztuko dira gutun-azal itxi baten barruan. Gutun azalean honako hau idatziko da: "PROZEDURA IREKI BIDEZ, NERABEEN ZERBITZUA (GAZTELEKU) KUDEATZEKO KONTRATUAREN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA". Aipatu gutun-azalak, aldi berean, beste hiru gutun-azal jasoko ditu barruan; A, B eta C.


'A' gutun azalean hauxe idatziko da: "ADMINISTRAZIO AGIRIAK", eta agiri hauek jasoko ditu:

a) Eskaintzailearen edo horren ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Eskatzailea ordezkari moduan edo mandatuz aritzen bada, gainera, notarioak emandako ahalordea.

b) Eskaintzailea pertsona juridikoa bada, eraketaren edo aldarazpenaren eskritura, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta eta identifikazio fiskaleko zenbakiarekin, baldin eta aplikatu dakiogeen merkataritza- legediak pertsona juridikoa inskribatuta egotea eskatzen badu. Ez bada pertsona juridikoa, eraketa-eskritura edo -dokumentua, estatutuak edo sortze-egintza erabiliko da jarduteko gaitasuna ziurtatzeko. Kasuan kasuko erregistro ofizialean izena emanda daukan jarduera erregulatzen duten arauak zehaztuko dira agiri honetan. Europar Batasuneko estatu kideetako enpresari ez espainiarrak izanez gero, dagokien erregistroan izena emanda daudela ziurtatzeko agiria aurkeztu beharko dute, edo zinpeko aitorpena edo ziurtagiria, betiere, aplikatzekoak diren xedapen europarren arabera.

c) Kontratazioa debekatzeko Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 60. artikulua zehazten dituen kasuetatik bakar batean ere ez dagoela aitortzen duen erantzukizuneko adierazpena. Adierazpen horretan, lizitatzailleak hau ere aipatu beharko du berariaz: indarrean dagoen legeriak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta dituela, horren ziurtagiriak aurkeztu ez baditu behintzat.

d) Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda egotea ziurtatzea, hain zuzen, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean. Horretarako, alta bera aurkeztu beharko da, aurtengo ekitaldikoa bada, edo EJZaren azkeneko erreziboa, gainerako kasu guztietan; nola kasu batean hala besteetan, zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizuneko adierazpena ere aurkeztu beharko da.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

e) Eskaintzaileak behar besteko gaitasun ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala dituela erakusten duten agiriak.

e.1) Enpresaren gaitasun ekonomiko eta finantzarioa ondoren aipatzen diren bideetakoren batez edo biez bermatuko da:

- Finantza-erakundeen txosten egokien bidez, edo lanbide-arriskuen kalte-ordainetarako aseguruak daukala egiaztatuz.

- Kontratuaren xede den jardunbidearen eremuan enpresak duen negozio-bolumenari buruzko aitorpena; azken hiru ekitaldiei dagokiena.

Baldin eta, justifikatutako arrazoia dela-eta, enpresaburuak ezin baditu eskatutako erreferentzia horiek aurkeztu, kontratazio-organoak askiesteko moduko beste edozein agiriren bidez egiazta dezake ekonomia- eta finantza-arloetan daukan kaudimena.

e.2) Enpresaren gaitasun teknikoaren edo profesionalaren justifikazioa Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko 78. artikulua araberako bermatuko da, ondoren aipatzen diren bitartekoez:

- Azken hiru urteetan emandako zerbitzu edo egindako lan garrantzitsuenen zerrenda bat, ondorioetarako organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez honako hauek barru hartuko dituen: zerbitzu edo lanen zenbatekoa, datak eta jasotzailea, eta publikoak nahiz pribatuak izan diren.


- Zuzendaritzako kideen titulazio akademikoa eta profesionala, eta, bereziki, kontratua gauzatu duen edo duten arduradunena.

Zerbitzura atxikitako langileei eskatutako titulazioak honako hauek izango dira:

	Titulazioa	Euskara
Koordinatzailea - Arduraduna Hezitzaileak	Unibertsitateko erdi-mailako titulazioa (gizarte-zientzietan, pedagogian, psikologian, gizarte-hezkuntzan) edo maisu-maistra ikasketak.	EGA titulua edo baliokidea.

Alderdi hau kontratura atxikiko diren langileen curriculumarekin eta tituluekin bermatuko da, horiek aurkeztuta.

Atxikitako langileen titulazioari buruzko baldintza horiek funtsezko betebeharrak dira kontratuaren barruan; hortaz, 223 f) artikuluan xedatutakoaren babesean, kontratuak irauten duen bitartean baldintza horiek ez betetzea arrazoi nahikoa izango da kontratua suntsiarazteko.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

f) Enpresari-multzo bat lizitaziora Aldi Baterako Enpresa Elkarte gisa aurkezten bada, elkarte hori osatzen duen enpresa bakoitzak jarduteko ahalmena eta kaudimena bermatu beharko ditu, aurreko klausuletan ezarritakoa betez, eta,, halaber, esleipena eskuratuz gero aldi baterako enpresa hori formalki eratzeko konpromisoa hartu beharko du. Halaber, proposamenean argi adierazi beharko dituzte enpresa-elkarteko bakoitzak zer lan zehatz egingo duen eta enpresa bakoitzaren ordezkariaren identitatea, guztien gaitasuna zehazteko eta egiaztatu ahal izateko.

g) Atzerriko enpresek, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla jakinarazteko adierazpena aurkeztu beharko dute, bai eta lizitatuzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioko foruari uko egiten diotela jakinarazteko adierazpena ere, kasua hori balitz.

Aurreko a), b) eta e) ataletan zehaztu diren baldintzak egiaztatzeke, bi modu daude: Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatuzaileen eta Enpresa Saillkatuen Erregistro Ofizialaren ziurtagiria aurkeztuta, edota Estatuko Lizitatuzaileen eta Enpresa Saillkatuen Erregistro Ofizialaren ziurtagiria aurkeztuta. Klausula honetan adierazi eta aurkeztuko den dokumentazioa jatorrizkoa nahiz fotokopia egiaztatua izan daiteke. 'B' gutun-azalaren izenburua "ESKAINITZA EKONOMIKOA" izango da, eta proposamen ekonomikoa jasoko du, ondoren jaso den ereduaren arabera:

Izena:, bizitokia:
....., posta-kodea:, NAN zenbakia:
telefonoa:, posta elektronikoa....., ahalmen juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren jabe denak, nire izenean (edo ondoko honen izenean:, bizitokia:
....., posta-kodea:, telefonoa:, NAN edo IFK zenbakia:
-pertsona fisikoa edo juridikoa izan-), jakinik prozedura ireki bidez 'NERABEEN ZERBITZUA (GAZTELEKU)' KUDEATZEKO KONTRATUAREN kontratazioan parte hartzeko deitutako lehiaketa zabalik dagoela, honako hau deklaritzen du:


1) Lanak egiteko konpromisoa hartzen dudala, €-ren truke, gehi€ BEZa; prezio horren barrenean sartzen dira kontzeptu guztiak, eta horien artean mota guztietako tributuen alorreko zergak, gastuak, tasak eta arielak, baita kontratistaren industria-mozkina ere.

2) Ezagutzen ditudala betebeharrak teknikoak, administrazio-klausula berezien agiriak eta kontratu hau zuzenduko duten gainerako agiriak. Horiek guztiak nire gain hartzen ditudala berariaz, eta men egiten didala.

3) Ordezkatzen dudana enpresak zerbitzua irekitzeko, instalatzeko eta funtzionatzeko indarrean dagoen araudiak exijitzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen dituela.

.....(e)n, 20.....koaren(e)(a)n.

Izenpea



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

'C' gutun-azalean haxe idatziko da: "ESLEIPEN IRIZPIDEAK", eta agiri honen 24. klausulan ezarritako esleipen-irizpideak baloratzeko justifikazio-agiriak jasoko ditu.

27.- KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio-mahaia honela egongo da osatuta:

- Mahaiburua: Udalburua edo horrek izendatutako ordezkoa
- Mahaikideak:
 1. Gazteria Ataleko zinegotzi ordezkaria
 2. Eremu hauetarako Udal-teknikari bat : Euskara, Berdintasuna, Kultura
 3. Administrazio orokorreko teknikaria.
 4. Kontu-hartzailea.
- Idazkaria: Udalekoa edo horrek izendatutako ordezkoa

28.- ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Eskaintzak aurkezte epea bukatuta, gutun-azalak irekiko dira, eta lehenik 'A' gutun-azaleko administrazio-agiriak aztertuko dira; hau da, kontratatzeko gaitasunari dagozkionak.

Agiriek akatsak badituzte, edo informazioa osatu gabea bada, hiru egun balioduneko epea emango da agiriak zuzentzeko.

Eskaintzak aurkezteko aipatu epe hori, edo, bere kasuan, aurkeztutako eskaintzak zuzentzeko epe hori bukatuta, batzorde teknikora eramango dira horrek balora ditzan. Batzordeak, eskaintzak baloratuta, kontratazio-mahaira bidaliko ditu.


Aipatu batzorde teknikoak honako hauek osatuko dute:

- Ordiziako Udaleko gazteria-ataleko teknikaria.
- Gazteria-ataleko aholkulariak, Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatuak.
- Beasaingo Udaleko gazteria-teknikaria.

Jarraian, eta aipatu balorazioa eginda, 'B' gutun-azala ("ESKAINZA EKONOMIKOA") irekiko da ekitaldi publikoan, eskaintzaile guztiei horren berri emanda.

Hamar egun balioduneko epean, proposamenik onuragarriena erabaki eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, eta eskatzen zaionean, eskaintzaileak honako hauek egin beharko ditu:

- a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzen duten egiaztagiria aurkeztu beharko ditu, baldin eta agiri horiek proposamenarekin batera aurkeztu ez baditu.
- b) Kontratua burutzeko beharrezkoak dituen bitartekoak atxikitzeko konpromisoa betetzen duela ziurtatzeko dokumentua aurkeztu beharko du: Kontratura atxikitako langileen lan-kontratuak eta Gizarte Segurantzaren aurkeztutako altak.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

- c) Behin betiko bermea jarri.
- d) Erantzukizun zibileko aseguruaren polizaren kopia ekarri; poliza horrek gutxienez 300.000 euro estaliko ditu.

e) **ALDIZKARI ETA IRAGARKI GASTUAK**

Eskaera aipatutako epean behar bezala betetzen ez bada, lehiatzaile bere eskaintza bertan behera utzi duela ulertuko da, eta kasu horretan dokumentazio berdina eskatuko zaio hurren lehiatzaileari, eskaintzak aztertzerakoan jaso duten ordenaren arabera.

Esleipena aipatutako agiriak jaso eta hurrengo bost egun balioduneko epearen barruan egingo da.

Kontratua hamabost egun balioduneko epean formalizatuko da, esleipenaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Esleipendunak administrazioaren aurrera agertu beharko du kontratua administrazio-agirian formalizatzeko.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua formalizatu ez bada, administrazioak, aldez aurretik interesdunari entzunda, kontratua ezeztatzeko aukera izango du, eta kalte-ordainak kobratuko dizkio esleipendunari.

III.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA


29.- IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bateginean xedatutakoak, eta Herri Administrazioen kontratazioari ezar dakizkiokeen gainerako arauak aginduko dute, bereziki, testu bateginari aurka egingo ez dion guztian, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen araubide orokorrak, 1098/2001 Errege Dekretuak, urriaren 12ak, onartua.

Baldintza ekonomiko-administratiboan agiri honen eta espedientean jasotako gainerako agiri teknikoan artean kontraesanik egonez gero, agiri honetan jasotakoak aginduko du.

30.- JURISDIKZIO ESKUMENA

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpon daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorritik.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)


I. ERANSKINA

ESLEIPENDUNAK bere burua behartzen du eskuragarri izan ditzakeen datu pertsonalekiko sekretu profesionala gordetzera. Betebehar horrek iraun egingo du baita Ordiziako Udalarekin bere harremana eten eta gero ere, eta, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/99 Lege Organikoak ezartzen dituen baldintzak betez, datu pertsonalen segurtasuna eta osotasuna bermatzeko, eta horiek aldatzea, galtzea, tratatzea edo horietarako sarbidea izatea saihesteko beharrezkoak diren neurri tekniko eta eraketa-neurriak ezarriko ditu.

Modu berean, datuak soil-soilik kontratatu den zerbitzua betetzeko erabiliko dira, ESLEIPENDUNA izanik, emandako zerbitzuaren arabera, informazio horri erabilera okerra ematearen erantzule nagusia.

Kontratua bukatuta, ESLEIPENDUNAK kontratatutako zerbitzua dela-eta bere esku izan dituen informazio eta dokumentu guztiak itzuliko ditu.

ESLEIPENDUNA izango da klausula honetan ezarritakoa ez betetzearen ondorioz sor daitezkeen kalte eta galeren erantzulea, baita Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ezar lezakeen edozein zigorren zenbatekoa ordaintzearen erantzulea ere.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

**II. ERANSKINA
SUBROGATU BEHARREKO LANGILEEN ZERRENDA**

2 LANGILE

DEDIKAZIOA %25,3

AINTZINATASUNA: 2011KO AZAROAREN 1ETIK 2012KO EKAINAREN 30ERA
2012KO IRAILAREN 14TIK 2013KO EKAINAREN 30ERA

APLIKATUTAKO LAN HITZARMENA 2011-2014RAKO GIPUZKOAKO ESKU HARTZE SOZIALARI BURUZKO HITZARMENA
OINARRIZKO SOLDATA: AZKEN XEDAPENENKO LAUGARREN TAULAKOA

LANGILE BAT

DEDIKAZIOA: %28,20

AINTZINATASUNA: 2008KO AZAROAREN 1ETIK 2009KO EKAINAREN 30ERA
2009KO AZAROAREN 1ETIK 2010EKO EKAINAREN 30ERA
2010EKO AZAROAREN 1ETIK 2011KO EKAINAREN 30ERA
2011KO AZAROAREN 1ETIK 2012KO EKAINAREN 30ERA
2012KO IRAILAREN 14TIK 2013KO EKAINAREN 30ERA

APLIKATUTAKO LAN HITZARMENA 2011-2014RAKO GIPUZKOAKO ESKU HARTZE SOZIALARI BURUZKO HITZARMENA
OINARRIZKO SOLDATA: AZKEN XEDAPENENKO LAUGARREN TAULAKOA